

“Lo primero, que nos dejen tranquilas”: sexu-lanaren estigma, indarkeriak eta erresistentziak¹

Lorena Alonso Navarro

Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea,
Euskal Herriko Unibertsitatea EHU
lalonso079@ikasle.ehu.eus

Edurne de Juan Franco

Soziologia eta Gizarte Langintza Saila,
Euskal Herriko Unibertsitatea EHU
edurne.dejuan@ehu.eus

Artikulu honek sexu-lanaren inguruko estigma eta kriminalizazio-logikek eguneroko bizipenetan eta zerbitzu-ibilbideetan duten eragina aztertzen du, ikuspegi intersektional eta feministan kokatuta eta sexu-langileen ahotsak erdigunean jarrita. Ikerketa kualitatiboa egin da, elkarrizketa sakonak, behaketa parte-hartzailea eta etnografia digitala triangulatuz; datuak analisi tematikoaren bidez tratatu dira, posizionamendu etikoa eta autoerreflexibitatea txertatuta. Estigmak isiltasuna, erruduntasuna eta tratu diferentziala eragiten ditu; kriminalizazioak klandestinitatea eta sarbide-oztopoak handitzen ditu osasun eta gizarte baliabideetan. Aldi berean, erresistentzia-praktikek —kalte-murrizketa, autoantolakuntza-sareak eta pareen arteko jakintza— eta hauek sostengatzen dituzten baldintzek —talde-identitatea, espazio seguruak eta parte-hartze informatua—, agentzia indartzen dute. Gizarte-zerbitzuetan harrera ez-estigmatizatzailea, deribazio seguruak eta koordinazio komunitarioa funtsezkoak dira; izan ere, despenalizazioan eta eskubide-ikuspegian oinarritutako esku-hartzeek emaitza hobek ematen dituzte.

Gako-hitzak:

Sexu-lana, estigma, indarkeria instituzionala, kriminalizazioa, erresistentziak, gizarte-zerbitzuak.

Este artículo analiza cómo el estigma y las lógicas de criminalización del trabajo sexual inciden en la vida cotidiana y en los itinerarios por los servicios, desde un enfoque interseccional y feminista que sitúa las voces de las trabajadoras sexuales en el centro. Se trata de una investigación cualitativa que triangula entrevistas en profundidad, observación participante y etnografía digital, con análisis temático y un posicionamiento ético y autorreflexivo. El estigma produce silencio, culpa y trato diferencial; la criminalización incrementa la clandestinidad y las barreras de acceso a recursos sanitarios y sociales. Al mismo tiempo, las prácticas de resistencia —reducción de daños, redes de autoorganización y saberes entre pares—, junto con las condiciones que las sostienen —identidad colectiva, espacios seguros y participación informada—, fortalecen la agencia. En el ámbito de los servicios sociales, la acogida no estigmatizante, las derivaciones seguras y la coordinación comunitaria son claves; de hecho, las intervenciones basadas en la despenalización y el enfoque de derechos tienden a ofrecer mejores resultados.

Palabras clave:

Trabajo sexual, estigma, violencia institucional, criminalización, resistencias, servicios sociales.

¹“Lehenik eta behin, lasai utz gaitzabela” ikerketan kolaboratzaile izan den sexu-langile aktibista baten adierazpen literala da eta jatorrizko hizkuntzan mantendu dugu. Galdetu zitzaionean zer egin zitekeen gizarte-langintzatik edo gizarte-baliabideetatik, honela erantzun zuen: “lo primero de todo, dejarnos tranquilas. Dejarnos tranquilas. Respetar nuestra decisión” (P1). (“Lehenik eta behin, lasai uztea. Lasai uztea. Gure erabakia errespetatzea”).

1. Sarrera eta justifikazioa

Sexu-lanaren inguruko eztabaida publiko eta politikoak azken urteetan areagotu dira, eta askotan bi muturren arteko talka gisa aurkezten dira: abolizionismoa, batetik, eta erregulazionismoa, bestetik. Eztabaida horietan, ordea, maiz isilarazita geratzen dira jarduera horretan diharduten emakumeen² ahotsak, eta bigarren plano batean geratzen da estigmak eta kriminalizazioak eguneroko bizitzan eta zerbitzu-ibilbideetan duten eragin zehatza. Testuinguru honetan, gizarte-zerbitzuek eta ongizate-politikek zeresan erabakigarria dute: sarbidea, harrera eta eskubiderako bideak erraz ditzakete, edo, alderantziz, oztopatu eta errebiktimizazioa elikatu dezakete.

Artikuluaren ekarpena³ hiru mailatan kokatzen dugu. Lehenik, deskribatzailea eta analitiko da: estigma eta kriminalizazio-logiken eguneroko konfigurazioak dokumentatzen ditugu, ikerketa-kolaboratzaileen⁴ ahotsak ardatz hartuta. Bigarrenik, praktikoa da: gizarte-zerbitzueterako orientazio operatiboak proposatzen ditugu —harrera ez-estigmatizatzailea, protokoloen berrikuspen zehatzak, prestakuntza espezifikoa, eta sare pro-eskubideekin koordinazioan oinarritutako deribazio-ibilbideak—. Azkenik, politikoa eta etikoa da: akonpainamendua eskubide-ikuspegitik eta despenalizazioaren printzipioetatik gidatzearen beharra defendatzen dugu. Horregatik, analisia ez da kaltean bakarrik oinarritzen: erresistentzien eta agentziaren konfigurazioei erreparatzen diegu, babes- eta ahalduntze-ibilbideak nola artikula daitezkeen ulertzeko.

Gakoa ez da soilik indarkeria esplizituak identifikatzea, baizik eta indarkeria estruktural eta instituzionala egunerokoan nola gauzatzen den ulertzea: isiltasunaren eta lotsaren politikak; moralizazio diskurtsiboak (amatasun idealak, "hiritartasun onaren" neurriak); kontrol eta ikuskapen praktikak; eta baliabideetarako sarbidean agertzen diren oztopo administratibo eta kulturalak. Elementu hauek sarri modu sotilean funtzionatzen dute, baina ondorio

² Emakume* terminoak hemen barne hartzen ditu emakume cis eta transak, baita genero-disidentziak ere (NB/ez-bitarra, *gender-queer*, etab.). Gizonak ere sexu-lanean aritu arren, lan honek emakumeen esperientziak ditu ardatz: batetik, ikerketaren helburua eta laginaren osaera horrela direlako; bestetik, estigmaren eta kontrol moralaren genero-izaera bereziki agerikoa delako.

³ Artikulu hau Lorena Alonso Navararren Gizarte Langintzako gradu amaierako lanetik (2025) eratorria da; lana Edurne de Juan Francok zuzendu zuen. Testua bi egileon artean idatzi eta berrikusi dugu. Gure ustez, gradu amaierako lanak ikerketa akademikoari atea irekitzeaz gain, ikasleen eta irakasleen arteko elkarlanetik sortzen den ezagutza partekatua indartzeko aukera ere ematen du.

⁴ Sexu-langileak ikerketa honetan ez ditugu "aztergai" gisa tratatzen; ezagutzaren ekoizle (bazkide epistemiko) gisa ulertzen ditugu (Holmes eta Marcus, 2008; Angrosino, 2012). "Ikerketa kolaboratzaile" diogunean, ikuspegi hori eta izendapen hori aurretik egindako lanetan ere garatu da (De Juan, 2021, 2023; De Juan eta Arizti, 2024). Testu honetan ageri diren elkarrizketatuen kodeak ez ezik, behaketa eta sareetan parte hartu duten ahots anonimizatu guztiak ere hartzen ditugu aintzat. Eskerrik beroenak ematen dizkiegu haien ezagutza eta esperientzia gurekin partekatu izanagatik: haien eskuzabaltasunari esker da posible testu hau.

oso zehatzak dakartzate: osasun-arreta atzeratzea, informazio desorekatua, erakundeetara hurbiltzeko beldurra, edo baliabide publikoen ordez konponbide pribatu edo informal prekarioak bilatzea.

Horren aurrean, bildutako material etnografikoak erakusten du erresistentzia eta agentzia ere etengabeak direla. Emakume askok estrategia zehatzak garatzen dituzte estigma kudeatzeko, bezeroekin eta poliziarekin arriskuak gutxitzeko, edota osasun- eta gizarte-baliabideekin harreman "seguruagoak" negoziatzeko. Sare informalek —lagunek, kolektiboek, elkarte pro-eskubideek— funtsezko eginkizuna dute, eta horrek agerian uzten du gizarte-zerbitzuen eta sare horien arteko koordinazio argiago eta horizontalagoa beharrezkoa dela.

Artikula honela egituratzen da: hasteko, marko kontzeptuala aurkezten dugu; gero ikerketa-ikuspegia eta metodologia azaltzen ditugu; hurrengo atalean estigma eta kriminalizazioaren ondorioei buruzko analisi enpirikoa garatzen dugu; ostean gizarte-langintzarako orientazio operatiboak proposatzen ditugu, eta amaitzeko, ondorioak bildu eta eztabaida ixten dugu.

2. Marko kontzeptuala

2.1. Eredu juridikoak: ardatzak eta eragina

Ez dugu eredu juridikoen historia sakon azalduko; ardatz analitiko nagusiak laburbilduko ditugu, ondorengo analisia kokatzeko eta, bereziki, zerbitzu-ibilbideetan duten eragina argitzeko. Oro har, sexu-lanaren arauketari buruzko eztabaida penalizazio-despenalizazio *continuum* batean antolatzen da, eta tartean erregulazio aukera desberdinak kokatzen dira.

- Erreglamentarismoa. Sexu-lana sahiestezina baina kontrolagarri gisa ulertzen da; helburua ez da desagerraraztea, baizik eta kontrol sanitario-polizialaren bidez "ordenu publikoa" bermatzea (Bailón, 2016). Horren ondorioz, jarduna ez da lan gisa aitortzen, eta erregistro eta baimen sistemak, azterketa mediko periodikoak eta zonifikazioa ezartzen dira. Dimensio higienistak eta diskurtso moralizatzaileak uztartzean, kontrolaren eta estigmatizazioaren arkitektura bat ezartzen da.
- Abolizionismo klasikoa. Prostituzioa desagerrarazi beharreko gaitz gisa irudikatzen da, eta "salbazioaren" narratibaren bidez sexu-langileak biktima gisa kokatzen ditu, sarri klase eta kode moral jakinetan oinarrituta; horren ondorioz, sexu-lana sexu-esplotazioarekin nahasteko joera areagotu egiten da eta kriminalizazio logikak sendotzen dira (Global Network of Sex Work Projects, 2024).
- Prohibizionismoa. Prostituzioa delitu gisa tipifikatzen du eta zigor-mekanismoen bidez desagerrarazi nahi da; praktikan, neurri

errepresiboek sexu-langileengan dute eraginik handiena, eta klandestinitatea eta ziurgabetasuna areagotzen dute (Cibati eta Losada, 2010).

- Erregulazionismoa. Sexu-lana lan-jarduera gisa aitortu eta arautze espezifiko baten bidez eskubide laboral eta sozialak bermatu nahi dituen eredu da. Horren bidez, aitortza instituzional handiagoa sustatzen da. Hala ere, despenalizazioarekin alderatuta, kontrol-, erregistro- edo lizentzia-mekanismo jakin batzuk mantendu ditzake, eta horrek estigma edo sarbide-desberdintasun batzuk bere horretan uzteko arriskua dakar (Sánchez Perera, 2019).
- Neoabolizionismo nordikoa. Eskaria penalizatzen du —bezeroei (eta kasu batzuetan bitartekari) isunak edo zigorrak ezarri—; eskaintza formalki ez penalizatu arren, kontrol poliziala areagotu eta jarduera ezkutatuago egitera bultzatzen du. Ondorioz, klandestinitatea handitu, arriskuak espazio batzuetatik (kalea) beste batzuetara (kluba/pisua/online) desbideratu, eta bezeroen aurrebalorazio edo egiaztapenerako aukerak murrizten dira (Global Network of Sex Work Projects, 2024; Armstrong eta Abel, 2022).
- Despenalizazioa. Sexu-lana lan gisa aitortu eta jarduna lan-araudi orokorraren babespean kokatzen da; ez da lege penal espezifiko bidez zigortzen, baizik eta baldintzak arau administratibo orokorrek zehazten dituzte. Egitura honen bidez sarbide instituzionala eta segurtasun subjektibo zein objektiboa hobetu ohi dira —deribazio seguruak, salaketarako kanalak, kalte-murrizketa eta lan-baldintza duinak aktibatzeak aukerak—, estigma berez ez bada desagertzen (Armstrong eta Abel, 2022). Eredu honek ez du sexu-langilea ez biktima ez delitugile gisa tipifikatzen; horrek autonomia sendotu eta eskubideen bermea indartzen du.

Eredu juridikoek zerbitzu-ibilbideetan ondorio ezberdinak eragiten dituzte: erreglamentarismoak susmo-logikak, egiaztapen-gehiegizkoak eta pribatutasun-urraketak normalizatzen ditu, isiltasuna eta klandestinitatea areagotuz; abolizionismo klasikoak infantilizazioa eta "irteera programen" bidezko bideratze derrigortuak sustatzen ditu, konfiantza-hausturak eraginez eta autonomia zein agentzia ahulduz; prohibizionismoak polizia-presioa, isunak eta kontrol administratibo zorrotzak areagotzen ditu, erakundeekiko beldurra eta deribazio seguruarako oztopoak metatuz; eta neoabolizionismo nordikoa, eskaria zigortzeak jarduera ezkutuagoa bihurtzen du, bezeroen aurrebalorazioa edo egiaztapena zailduz eta zerbitzuetara hurbiltzeko konfiantza urrituz.

Aitzitik, despenalizazio-markoek harrera ez-estigmatizatzailea, bide seguruak eta kalte-murrizketarako estrategiak errazten dituzte, eta sarbide instituzionala argiago egituratzen dute; hala ere, estigma ez da berez desagertzen, eta horregatik, ezinbestekoa da hizkera eta protokoloak modu sistematikoan berrikustea.

2.2. Prostitutaren estigma

Gizarte patriarkalean, "prostituta" irudia emakumeen sexualitatea eta jokabide "onaren" kanona kontrolatzeko tresna historiko gisa eraiki da (Sánchez Perera, 2019; Falconí, 2022). Horregatik, "prostituta" ez da sexu-lanaren praktikara mugatzen den etiketa hutsa: arau hetero-patriarkalek ezarritako emakumetasun "onaren" kanonak (portaera, amatasun-ideala, diskrezioa...) hausten dituzten emakumeak diziplinatzeko kategorია da. Ondorioz, arau horiek transgreditzen dituzten emakumeak —lan sexualean aritu edo ez— estigmatizatuak izaten dira, eta susmo-logikek zein moralizazio-diskurtsoek ondorio zehatzak eragiten dituzte: bazterketa, mesfidantza eta kontrola, besteak beste.

Generoa eta sexualitatea ez dira kategoría naturalak, baizik eta erregimen heteronormatiboak sortutako eraikuntza sozialak. Hortaz, "emakume" izatearen kategoría arau eta hierarkia horien bidez eratzen da, eta mugetatik kanpo kokatzen diren subjektuak —arauak ez betetzeagatik— marka diziplinarioekin etiketatutako izaten dira. Testuinguru horretan ulertu behar da "prostituta" kategoría: ez soilik praktika jakin bati lotutako identifikatzaile gisa, baizik eta emakumetasun onargarriaren mugak markatu eta haiek transgreditzen dituztenak zigortzeko etiketa gisa (Wittig, 1992).

Horrek guztiak eragin zuzena du sexu-langileen subjektibitatean. Estigmaren indarrak identitate positiboak eta talde-identitatea eratzea zailtzen du; kolektiboa historikoki zapalduta egon denez, identitatea maiz kanpotik ezarritako kategoría eta iruditeriek antolatzen dute. Gainera, aipatu beharra dago sexu-langileen artean ez dela egon talde gisa antolatutako kolektibo egonkor eta aitorturik, eta horrek are gehiago zailtzen du norberaren bizipenetatik abiatutako identitate pertsonal positiboak eraikitzea.

Goffmanek (1963) azaldu bezala, estigma gizarteak onartezintzat jotzen dituen ezaugarri edo portaerekin lotzen da, eta horien bidez pertsonak eta taldeak sailkatu, hierarkizatu eta isolatu egiten dira. Sexu-langileen kasuan, etiketatze sinboliko horrek bazterketa sozial materiala ere eragiten du, eta maiz "gizartearentzat kaltegarri" edo "arriskutsu" gisa inskribatzen dira, bai diskurtso instituzionalean bai imaginario sozialean.

Literaturan bereizten diren estigma-moduek —estigma publikoa edo inposatua, autoestigma edo barneratua, eta asoziaziozkoa edo transferitua (senideei eta ingurukoei ere itsasten zaiena)— eguneroko harremanetan gauzatzen dira: isiltasun estrategiak eta autozentsura areagotzen dira, lan-espazioak ezkutatu egiten dira, eta zerbitzu publikoetara hurbiltzeko beldurra sortzen da. Horrela, subjektuen jardun-eremuak murriztu eta eguneroko bizitzan maneiatzeko aukerak estutu egiten dira (Goffman, 1963; Tapia *et al*, 2015).

Sánchez Pereraren (2019) arabera, prostitutaren estigmak gizatasuna kentzen duen identitate-marka

gisa funtzionatzen du; behin barneratzen denean, deshumanizazio hori naturalizatu egiten da, eta horrek autoestimua zein ahalduntze-prozesuak kaltetu egiten ditu, aukera sozial eta politikoak mugatuz. Horri lotuta, erruduntasuna eta lotsa askotan agertzen diren afektuak dira (Clemente Villar, 2020), eta afektu horien bidez estigma harreman instituzionalean ere islatzen da: osasun-sistemarekiko konfiantza ahultzen da, gizarte-zerbitzuetara jotzeko beldurra areagotzen da, eta etxebizitza- eta babes-sareetako sarbidea baldintzatzen da.

Paula Ezkerrak⁵ (2019) azpimarratu bezala, estigma botere-erregimen baten teknologia da: onartzen edo naturalizatzen denean, subjektuak botere-sistema horren logikan txertatzen dira, eta kontrola barneratu egiten da. Hala ere, horren aurrean, erresistentzia performatibo eta politikoak ere badaude: Georgina Orellanok⁶ besoa "puta" hitza tatuatzea —eta bere egunerokoan eta sare sozialetan ikusgarri egitea— erresignifikazio politiko gisa uler daiteke, kategoria zaugarri hori ahalduntze ikur bilakatuz (Niklison, 2019). Praktika horiek ez dute estigma automatikoki ezabatzen, baina ikusgarritasunaren bidez diskurtso hegemonikoa interpelatzen dute, eta memoria kolektiboa zein aliantza komunitarioak indartzen dituzte. McNayk (2000) gogorarazi duenez, subjektuak ez dira egitura horien aurrean izaki pasiboak; aitzitik, erresistentzia eta agentzia politikoa artikulatzeko eta estigmari aurre egiteko gai dira.

Estigma, hortaz, kategoria interseksional gisa ulertu behar da: klase-posizioa, migrazio-egoera, arrazalizioa eta genero-identitate disidenteak (trans, ez-bitarra, marika...) gurutzatzen direnean, estigmak pilatu egiten dira, eta horrek tratu- eta sarbide-desparekotasunak areagotzen ditu, baita arriskuen metaketa ere. Audre Lordek (1984) nabarmendu zuen moduan, emakumeen esperientziak ez dira modu uniforme batean gertatzen, opresio-ardatz ezberdinek (arraza, klasea, sexualitatea...) elkar gurutzatzen dutelako, desoreka soziala indartuz. Ondoren, Crenshaw (2012) interseksionalitatearen teoria artikulatu eta sendotu zuen, genero, arraza eta klasearen arteko gurutzaketek nola baldintzatzen dituzten emakumeen esperientziak azalduz.

Ikuspegi horretatik, estigma ez da pertzepzio indibidual hutsa: zerbitzu-ibilbideetan gauzatzen da, hizkeran, galdera-ereduetan eta prozedura instituzionalean. Hori da, hain zuzen, artikulatu honetan aztertzen dugun indarkeria instituzionalaren eguneroko forma: egitura sozialetan txertatutako

estigma, tratuan eta sarbidean etengabe berproduitzen dena.

Horren harira, Rismanek (2021) generoa egitura sozial gisa definitzen du; hots, gizartean ezarritako arau normatiboen ondorioz, jarrerak, portaerak eta aukerak modu hierarkikoan baldintzatuta daudela. Ez ditu, hala ere, botere-ezberdintasun horiek soilik deskribatzen: haiei aurre egiteko eta erresistentzia zein agentzia garatzeko beharra ere azpimarratzen du. Ikuspegi hori sexu-langileen esperientzietara ekarrita, funtsezkoa da erresistentzia kolektibo zein indibidualak garatzea, estigma sortzen dituen botere-harremanak interpelatu eta eraldatzeko, bai eguneroko praktiketari, bai harreman instituzionalean.

2.3. Indarkeriak

2.3.1. Indarkeria estrukturalak

Sexu-lanari lotutako arauketa Espainiako Zigor Kodean (10/1995 Lege Organikoa) jasota dago, eta horrek alegialitate-araubide berezi bat sortzen du: printzipioz jarduera bera ez da zigortzen, baina bai hortik etekina ateratzea (proxenetismoa, besteak beste). Konfigurazio horrek, praktikan, abolizionismoaren, erreglamentarismoaren eta prohibizionismoaren elementuak uztartzen dituen mosaiko normatibo bat osatzen du. Mosaiko horrek estigma indartu eta sexu-langileen lana deslegitimatzen du: teorikoki zigor-sistemaren xede nagusiak proxenetak badira ere, errealitatean kaltea sexu-langileen gain pilatzen da, prekarizazioa areagotuz eta segurtasuna arriskuan jarritz (Sánchez Perera, 2019).

Egitura horri atzerritarren legearen (4/2000 Lege Organikoa) eragin estrukturalak gehitzen zaizkio. Kolektiboan presentzia handia duten emakume migratzaileentzat, egoera administratiboak sarbiderako ateak baldintzatu eta bazterketa-arriskuak handitzen ditu. "Babesa" helburu dutela aurkezten diren neurri ugari, praktikan, eskubideen murrizketa eta kontrola ekar dezakete, estigma eta diskriminazioa berrindartuz. Ondorioz, hezkuntza-sisteman, osasun-arretan eta lan-merkatuan sartzeko aukerak murriztagoak dira; oztopo horiek gainditzeko, errolda edo egoitza administratiboak eta egonkortasun ekonomikoa funtsezko bihurtzen dira, baina baldintza horiek ez dira erraz eskuragarriak (Arella *et al.*, 2007).

2.3.2. Indarkeria instituzionalak

Indarkeria estruktural horiek eguneroko praktika instituzionalean zehazten dira. Poliziaren presentziak eta kontrol-dinamikek eragin zuzena dute lan-eremuetan: bezeroen beldurra areagotu, jarduera gehiago ezkutatzera bultzatu eta diru-sarrerak murriztu egiten dituzte. Inkesta eta txosten ugari jasotzen dute sexu-langileen %60 inguruk noizbait indarkeria poliziala pairatu dutela: isunak, sarekadak, irain eta tratu txar hitzekoak, atxiloketak edo kanporatze-espeditentak (Comité de Apoyo a las

⁵ Paula Ezkerra sexu-langilea eta aktibista feminista da. Putas Indignadas kolektiboko kidea da, eta Kataluniako Sexu Langileen Eskubideen aldeko sareetan parte hartzen du; bere aktibismoaren ardatza sexu-lanaren despenalizazioa eta sexu-langileen eskubide eta askatasunen aitortza dira.

⁶ Georgina Orellano Argentinako sexu-langilea eta aktibista feminista da; Asociación de Mujeres Meretrices de la Argentina/Trabajadoras Sexuales (AMMAR) sindikatuko idazkari nagusi ohia, sexu-langileen eskubideen eta despenalizazioaren aldeko erreferentea. *Putas feminista: historias de una trabajadora sexual* (2022) liburuaren egilea.

Trabajadoras del Sexo, 2024)⁷. Sarritan, esku-hartzeko horiek profilatzeko irizpideetan oinarritzen dira (azal-kolorea, egoera administratiboa, emakume transen identitatea), eta, ondorioz, pribatutasuna, askatasuna eta segurtasuna urratzen dituzte, estigma berreraiki eta sendotuz.

Antzeko logikak ikus daitezke osasun-sisteman ere. Arreta jasotzera hurbiltzen diren emakume askok tratu desegokia, susmo-logikak eta balorazio moralizatzaileak jasotzen dituztela salatzen dute. Testuinguru batzuetan, emakume hauen gorputzak "zikin" gisa irudikatzen dira, eta derrigorrezko azterketa ginekologikoak edo GIB-probak egitera behartzen zaie —ez beti justifikazio kliniko argiarekin—. Proba horiek egiteari uko egiteak zigorrak ekar ditzake edo lan-aukerak ukatzea eragin, haien zaurgarritasuna areagotuz (Almanza, 2022).

Laburbilduz, indarkeria estrukturalak eta instituzionalak elkar elikatzen dira: arau-esparruek eta kontrol-praktikek klandestinitatea eta beldurra handitzen dituzte, eta horrek sarbide segurua zailtzen du, bai osasun eta gizarte-baliabideetara, bai salaketarako eta babeserako bideetara. Testuinguru horretan, jardun profesionalean funtsezkoa da estigma-murrizketa, deribazio seguruak eta harrera ez-estigmatizatzailea sistematizatzea, betiere sexu-langileen eskubideen ikuspegitik eta haien ahalduz kolektiboa ardatz hartuta.

3. Ikerketa ikuspegia eta metodologia

Ikerketa etnografiko kualitatiboa da, ikuspegi antropologiko, interseksional eta feministan kokatua. Helburua da ulertzea nola eraten diren sexu-lanaren inguruko estigma, kriminalizazio-logikak eta indarkeria instituzionala, betiere sexu-langileen interpretazio eta pertzepzioak ardatz hartuta. Horretarako, triangulazio metodologikoa erabili dugu: elkarrizketa sakonak, praktikaldiko testuinguruan egindako behaketa parte-hartzailea eta sare sozialetan garatutako etnografia digitala uztartu ditugu. Hiru teknikak elkarren osagari dira: elkarrizketek ahotsen sakontasuna eta analisi-maila ematen duten bitartean, behaketa parte-hartzaileak eta etnografia digitalak gure ikuspegi antropologikoaren muina osatzen dute, eguneroko interakzioen testuinguruan agertzen diren praktika, diskurtso eta harreman-dinamiken ñabardura sotilak antzemateko aukera eskainiz.

3.1. Praktika testuingurua eta posizionamendua

Praktikaldia ikuspegi abolizionista nabarmena duen elkarte batean egin zuen Lorenak. Testuinguru horrek balio analitiko esanguratsua eskaini zigun, diskurtso eta praktiken tentsioak modu bereziki agerian jartzen baititu; aldi berean, kokapen politiko-epistemikoaren kontzientzia zorrotza eskatzen du. Ikerketaren ildo etikoak sexu-langileen eskubideen aldeko markoan kokatu ditugu, eta autoerreflexibitatea etengabe landu dugu, bai harreman profesioletan, bai interpretazio-uneetan.

Horrenbestez, lan honek ikertzaileen posizionamendua esplizituki azaleratzen du: despentalizazio-printzipioetatik eta sexu-langileen eskubideen defentsatik abiatzen gara, eta horrek baldintzatzen du bai zer galdetzen dugun, bai nola interpretatzen dugun jasotako materiala. Uste dugu ikerketa objektiboa egiteko modu bakarra gure subjektibotasuna onartetik abiatzen dela. Posizionamendu horren aitortzak ezagutza kokatua eta erantzukizun etiko-politiko jartzen ditu erdigunean, neutraltasunaren ilusioaren gainetik.

3.2. Datu bilketa: teknikak eta erregistroa

Ikerketak hiru teknika triangulatu ditu: behaketa parte-hartzailea, etnografia digitala eta elkarrizketa sakonak.

Behaketa parte-hartzailea izan da korpusaren oinarri nagusia. Praktikaldiko testuinguruan egin da —bulegoko arreta soziala eta pisuetara zein klubetara egindako irteerak—, eta eguneroko praktikak, interakzioak, elkarrizketa informalak, deribazio-ibilbideak eta harreman-dinamikak modu sistematikoan erregistratu dira landa-koaderanoan (Pujadas *et al.*, 2004).

Etnografian, begirada ez da pasiboa: interpretatiboa da, eta jasotzen dugunaren esanahia eraikitzen du (Fernández de Rota, 2012). Horregatik, funtsezkoa izan da entzute arretatsua eta testuinguruko lantzea, parte-hartzaileen espazioak eta erritmoak errespetuz esploratzea, eta zentzuen bidez "eremua sentitzea", xehetasunetik ulermena eraikitzeko (Stoller, 1989). Laburbilduz, behaketa parte-hartzailea pertsonen, objektuen eta ekintzen arteko elkarrizketa jarraitu gisa ulertu dugu; begiradaren eta entzumenaren arteko sinergia horri esker, errealitate horien esanahiak modu kokatuan azaleratu dira.

Etnografia digitalak sare sozialen jarraipen sistematikoa eta eduki-analisi arduratsua uztartu ditu, denboran zehar eskubideen aldeko aktibismoaren diskurtso eta praktikak dokumentatzeko, eta *online/offline* esferak elkarrekin lotzeko (Ardévol eta Gómez-Cruz, 2014). Sare sozialen monitorizazio sistematikoak⁸ aukera eman du sexu-langileen

⁷ 2002an sortua, Murtzian, elkartasun-mugimenduaren eta nazioarteko lankidetzaren testuinguruan. Hasieran prostituzioaren zeuden emakumeen premiei erantzutera bideratua bazegoen ere, gaur egun elkarteko kide gehienak sexu-langileak dira. Kriminalizazioaren eta estigmaren aurka egiten du, eta sexu-langileen eskubide laboral eta sozialen aitortza eta hobekuntza defendatzen ditu (Comité de Apoyo a las Trabajadoras del Sexo, 2024).

⁸ 2024ko azarotik 2025ko ekainera arte, astero zazpi orduko jarraipen sistematikoa egin da, horien artean, elkarrizketak, *podcast*-ak eta *post*-ak. Kontu horietan argitaratzen den informazioa sexu-langileen eskubideen aldeko ikuspegia islatzen du.

esperientziak sakonago ezagutzeko, haien diskurtsoak eta praktikak nola eraikitzen eta negoziatzen diren aztertuz. Horrela, sexu-lanaren munduan barneratze gradual eta testuinguratua egin dugu, bereziki Estatu espainiarreko eta Abya Yalako (Latinoamerikako) aktibismo-sare eta elkarte pro-eskubideen kontu ofizialen jarraipenaren bidez.

Elkarrizketa sakonek bi sexu-langile aktibisten eta bi adituren (antropologoa eta jurista) ahotsen sakontasuna eta ikuspegi analitiko osagarriak ekarri dituzte. Laginaren aukeraketa intenzionala izan da: ezagutza kokatua eta esperientzia zuzena duten profilak hautatu dira. Elkarrizketak online egin dira, partaideen egutegietara egokituta; grabatu, transkribatu eta kode anonimoekin identifikatu dira⁹ (P1 eta A1, sexu langileak; C1, antropologoa; A2, jurista).

Gai multzoak hiru ardatz nagusitan antolatu dira: 1) esparru juridiko-politikoek eta diskurtsoek estigma nola elikatzen duten; 2) eguneroko ondorioak (harreman pertsonalak, osasuna, instituzioekin harremanak); eta 3) indarkeria-esperientziak eta erresistentzia formak. Elkarrizketak gidoi erdi-egituratuarekin abiatu dira, baina malgutasunez gidatu dira: elkarrizketatuek markatu dituzte erritmoa eta lehentasunak, eta ikertzaileek entzute aktiboa eta zaintza etikoa lehenetsi dute, informazioa lortzearen gainetik pertsonen ongizatea kokatuz (Rabinow, 1992; Spivak, 1984-1985).

Ikuspegi epistemologikotik, ezagutza elkarrizketa-egoeretan intersubjektiboki eta kokapen zehatzetatik eratzen dela ulertzen dugu; hortaz, prozesua elkarlanekoa eta dialogikoa izan da, harreman-dinamiken eta gertutasun-mailaren araberakoa (Esteban, 2004, 2019; Haraway, 1995; Harding, 1996). Indarkeria estruktural eta instituzionalak problematizatzeko orduan, konpromisu etiko eta politiko esplizitua izan da gure abiapuntua: kalteen ondorioak salatu, galderen inbasibitatea saihestu eta kolaboratzaileen mugak errespetatuz jardun dugu.

Laburbilduz, ikuspegi antropologikotik, errealitatea interpretatzeko giltza "han egotea" da: bertan egoteak —behaketa parte-hartzailearen eta etnografia digitalaren bidez— eguneroko interakzioetan txertatutako ñabardurak, zentzuen eraikuntza eta botere-dinamiken konfigurazioa ikusarazten ditu. Elkarrizketen kopurua ez da handia, baina nahikoa eta egokia izan da behaketetan jasotakoa osatu eta kontrastatzeko, eta, batez ere, interpretazio testuinguratua eta koherentea eraikitzeko.

⁹ Lan honek EHUko Giza Ikerketarako Etika Batzordearen (CEISH) gidalerroak jarraitu ditu. Parte-hartzaile guztiek baimen informatua sinatu dute; datuen tratamendua indarreko araudira egokitu da. Elkarrizketatuei azaldu zaie transkripzioen erabilera, anonimizazioa eta, hala nahi izanez gero, edozein unetan atzera egiteko edo argitaratzeko baimena ukatzeko eskubidea.

3.3. Datuen analisirako prozedura

Material etnografikoa analisi tematiko induktiboaren bidez landu da. Landa-oharrak, etnografia digitaleko erregistroak eta elkarrizketa-transkripzioak batera kodifikatu dira, eta hortik honako kategoria nagusiak eratu dira: 1) abolizionismo "kartzelariora"; 2) estigma eta boterea; 3) herritar "ona"; 4) kriminalizazioa; eta 5) gizarte-langintzaren papera. Azpikategoriak —adibidez, isiltasuna/lotsa, errebiktimizazioa, amatasun ideala— kategoria nagusi horiek zehazteko eta egituratzeko erabili dira.

Azken fasean, emaitzak literaturarekin eta praktika profesionalarekin triangulatu eta gurutzatu dira, gako operatiboak eta orientazio-proposamenak identifikatzeko. Horrela, analisiak ez du soilik fenomenoak deskribatzen; gizarte-zerbitzuetako akonpainamendu-prozesuetan baliagarriak izan daitezkeen irakurketa eta irizpide praktikoak ere eskaintzen ditu.

4. Analisi empirikoa

4.1. Abolizionismo kartzelariora: kontrola eta kalteak

Atal honetan, abolizionismo kartzelariora egiten zaizkion kritikak aztertzen dira, eta moralizazio- eta kontrol-logikek sexu-langileen esperientzietan duten eragina ere jasotzen da. Ildo horretan, elkarrizketatutako antropologoak honela adierazi zuen:

Yo creo que el abolicionismo de este momento, carcelario, como le llamo yo, solo piensa en sí mismo, y no piensa en las mujeres trabajadoras sexuales. No solo de las trabajadoras sexuales, sino de las que están en prisión también. Yo creo que sacrifica a poblaciones vulnerables de mujeres en función de sus ideas. (C1)¹⁰

Elkarrizketatutako antropologoak abolizionismo garaikidearen kontraesan nagusia azpimarratzen du: delituaren eta kontrol penal-polizialaren logiketan oinarritzen denean ("kartzelariora"), ikuspegi horrek ideien koherentzia lehenesten du, sexu-langileen bizi-baldintzen eta eskubideen gainetik. Emaitza ez da jardueraren desagerpena, baizik eta jazarpenaren intentsifikazioa eta klandestinitaterako bultzada; horrek arriskuak areagotzen ditu —bezeroen aurretiazko egiaztapena zailduz, negoziazio-ahalmena murriztuz eta indarkeria egoeren aurrean baliabideak ahulduz—. Aldi berean, estigma betikotu egiten da eta zerbitzu-ibilbideetan —osasuna, gizarte-zerbitzuak, etxebizitza— zailtasun metatuak sortzen dira; ondorioz,

¹⁰ "Nik uste dut une honetako abolizionismoak —nik 'kartzelariora' deitzen diodan honek— bere buruaz baino ez duela pentsatzen, eta ez duela sexu-langileengan pentsatzen. Ez sexu-langileengan bakarrik, baita kartzelan daudenengan ere. Nik uste dut emakumeen populazio zaurgarriak sakrifikatzen dituela bere ideien mesedetan" (artikuluaren adierazpen itzulpenak egileenak dira).

salaketarako eta babeserako sarbideak blokeatu edo atzeratu egiten dira.

"Kartzelario" etiketa, hortaz, ez da metafora hutsa: zigor-arkitekturak eta moralizazio-diskurtsoek elkar elikatuta, emakume migratzaileak eta emakume transak bereziki kolpatzen dituzte, desberdintasun intersektionalak sakonduz. Praktikan, eredu honek biktima-subjektuaren irudia eraikitzen du eta autonomia politikoa ahultzen du, "salbaketaren" izenean ezartzen diren neurriek paternalismo instituzionala indartzen dutelako.

Testuinguru horretan, sindikatu eta sare pro-eskubideek azpimarratzen dute lan izaeraren aitortza eta oinarriko eskubide laboralak ezinbestekoak direla. OTRAS Sindikatua¹¹ honela laburbiltzen du:

Nuestro trabajo ha existido a lo largo de la historia, en todos los rincones del mundo, sostenido a menudo por mujeres, migrantes, personas trans, maricas y quienes siempre hemos quedado fuera del círculo de la respetabilidad. A pesar de siglos de criminalización, persecución y estigma, seguimos aquí, luchando por lo que es nuestro, hasta que todes tengamos derechos. (OTRAS, 2025b)¹²

Ondorioz, ikuspegi abolizionista kartzelarioak ez du soilik deklaritzen duen helburuan huts egiten —eskaintza ez baitu desagerrarazten—; gainera, aurreikusi gabeko kalteak sortzen ditu: lan-espazioak itzaletara eramatea, diru-sarrerren galera eta ziurgabetasun materiala, baita babes-sare publikoetara hurbiltzeko beldurra ere.

4.1.1. Autonomiaren patologizazioa eta 'salbaketaren' mitoa

Ikuspegi abolizionistek, praktikan, sexu-langileen aurkako jazarpena areagotzeko joera dutela erakusten dute; hortaz, proxenetismoa desagerrarazi beharrean, kaltea maiz sexu-langileen gain mantentzen da. Sexu-langileen erabakitzeko gaitasuna etengabe zalantzan jartzen da, ikuspegi klasista eta paternalista batetik. Elkarrizketatutako sexu-langile aktibistak honela adierazten du: "el abolicionismo está empujando a las mujeres que defienden el derecho de trabajar en el trabajo sexual sean patologizadas. ¿Vale? Es un peligro tremendo" (P1).¹³

¹¹ OTRAS Sindikatua: sexu-langileen eskubideen aldeko erakunde sindikala da, sexu-lana lan legitimotzat kontsideratuz, eta indarkeria instituzionalen aurka eginez (OTRAS, 2025a).

¹² "Gure lana historian zehar existitu da, munduko txoko guztietan; sarritan emakumeek, migratzaileek, pertsona transek, marikiek eta errespetagarritasunaren zirkulutik kanpo geratu garenok sostengatua. Mendeetako kriminalizazioa, jazarpena eta estigma gorabehera, hemen jarraitzen dugu, geurea denaren alde borrokan, denok eskubideak izan arte!"

¹³ "Abolizionismoak bultzatzen du sexu-lanean lan egiteko eskubidea defendatzen duten emakumeak patologizatuak izatea. Ados? Arrisku ikaragarria da."

Aitek ere sexu-langileen autonomia aldarrikatzen du, erabakitzeko gaitasunaren patologizazioari eta infantilizazioari aurre eginez: "sin entender que las trabajadoras sexuales somos personas autónomas, y que realmente estamos ejerciendo libremente, porque queremos capitalizar nuestro placer y queremos salir de la precariedad económica" (A1).¹⁴

Landa-oharrek joera horiek eguneroko praktiketan nola gauzatzen diren erakusten dute. Kanpo-irteeretako batean jasotakoa:

Gaur kanpo-irteerak egin ditut. Ez zait batere gustatzen nola jazartzen diren sexu-langileak; izan ere, giroan beldur handia nabaritzen da. Sexu-langileei doako materiala emateko aitzakiarekin hurbildu eta jazartzea ez zait etikoa iruditzen. Haien lan eremuan sartzean lana eten eta oztopatu egiten da. Haien aurpegietan eta gorputz jarreretan deserosotasuna sentitu dut. (Landa-koaderno, 2024-11-27)

Bisitetan, gainera, elkarteko informazioa eta "orientazioa" eskaintzen zitzaizkien, "zer egin behar duten" markatuz; mezu horrek haien lanbidea moraliki ongi ez dagoela iradokitzen du. "Salbazio" logika horrek estigma elikatu egiten du (Landa-koaderno, 2025-02-13).

4.1.2. Lanaren ez-errekonozimendua eta klandestinitatea

Sexu-lana alegal denean, sexu-langileak ez dira subjektu politiko gisa aitortzen, ezta lan-subjektu gisa ere; horrek haien eskubideak artikulatzeko aukerak mugatzen ditu eta kolektiboaren ikusezintasuna areagotzen du. Marko abolizionista-penalizatzaileek jarduna gero eta ezkutuago bihurtzeko joera dute, klandestinitatera bultzatuz:

Alegaltasunean eragiten dien faktore garrantzitsuen da kentzen dietela emakume hauei haien lan-eskubideak borrokatzeko marko bat. Ez bakarrik ez dagoelako laboraliki erregulatuta, ez dago aitortuta gatazka sindikala, ez dago aitortuta greba eskubidea, enpresa-mailako eskubidea... Emakumeak ez dutela ulertzen bere burua sujetu moduan, hala nola, sujetu politiko moduan, hala nola subjektu politiko moduan eta langile moduan. (A2)

Praktikaldian behatutakoaren arabera, sexu-lanaren eszenatokia nabarmen aldatu da azken urteetan: lehen nagusiki kalean (Alde Zaharrean) egiten zen; ondoren, jarduera klubetara desplazatu zen; eta pandemiatik aurrera, pisu partikularren erabilera nabarmen ugari da. Joera horrek lotura zuzena du politika penalizatzaileek (abolizionismo kartzelarioa) eragindako beldurrarekin eta isunen nahiz polizia-operatiboaren arriskuarekin: jarduera espazio publikotik etxebizitza pribatuetara pasatzen da. Trantsizio horrek

¹⁴ "Sexu-langileok pertsona autonomoak garelako ulertu gabe, eta benetan libreki ari garela, gure plazerra kapitalizatu nahi dugulako eta prekariedade ekonomikotik irteten nahi dugulako."

ikusgaitasuna murriztu eta klandestinitatea areagotzen du; aldi berean, instituzioekiko konfiantza ahundu eta zerbitzuetara hurbiltzeko beldurra handitzen du (Landa-koaderno, 2025-03-14).

4.1.3. Abolizionismoaren kontraesana

Egitura horren baitan ulertu behar da abolizionismoaren kontraesan nagusietako bat. Diskurtso abolizionistek maiz infantilizazio-logikak aktibatzen dituzte eta feminismoaren barruko zatiketarik areagotzen dituzte, sexu-langileen autonomia eta ahalduz etengabe zalantzan jarriz. Horrela, sexu-lana "desagerrarazteko" borondatea kontrol eta zigortze praktiken bidez gauzatzen denean, arriskua dago opresio-aparatu berean txertatzeko; azken finean, suntsitu nahi den logika bera erreproduzitzen da: "siempre desde el feminismo decimos que es importante luchar contra la violencia contra las mujeres y el patriarcado, pero al final, cuando tú estás abolicionando algo, estas convirtiéndote en lo que tú juras destruir" (A1).¹⁵

Horren aurrean, ezinbestekoa da entzute aktiboaren aldeko politikak eta diskurtsoak garatzea, sexu-langileen ahotsak erdigunean jartzeko eta, aldi berean, haien eskubideen aldarrikapenak ikusgarri egiteko. A1en hitzetan: "mira, yo creo que los movimientos feministas abolicionistas, deberían de aplicarse el lema de 'te miramos, te escuchamos, pero no te juzgamos, sino entendemos'" (A1).¹⁶

4.2. Estigma eta boterea

Aurreko atalean azaldutako kontrol eta penalizazio arkitekturaren atzean, estigmak botere-teknologia gisa funtzionatzen du: identitateak markatu, gorputzak diziplinatu eta isiltasunak ekoizten ditu. Ez da pertzepzio huts eta individual bat; harremanetan, hizkeran eta prozedura instituzionaletan gauzatzen den eguneroko erregimena da, tratu diferentziala, autozentsura eta sarbide-oztopoak sortuz, bereziki zerbitzu-ibilbideetan. Hurrengo pasarteetan, sexu-langileen testigantzek eta behaketa parte-hartzaileak elkar elikatuz erakusten dute nola eratzen den estigma, nola mozten duen agentzia eta, aldi berean, nola irekitzen diren kontra-boterearen zirrikituak estigma interpelatzen denean. Izan ere, estigma apurtzen den une horietan irekitzen dira boterea berreskuratzeko aukerak. Sexu-langile aktibista batek horrela laburbiltzen du bere eskarmentua: "entonces, ahí me di cuenta, y rompí con el estigma. Eso es el estigma, me sentí superempoderada y dije: '¡guau!,

es como, ¡madre mía, lo que me acabo de sacar de encima!" (P1).¹⁷

4.2.1. Isiltasuna

Lotsaren aurrean, isiltasuna biziraupenerako estrategia bihurtzen da askotan. Modu horretan, sexu-langile askok atzerrian lan egitea hautatzen dute, identitatea klandestinitatean ezkutatu, eta, ondorioz, prostitutaren estigmari loturiko identitatea saihestuz:

Por eso hay muchas de ellas, sobre todo las que son españolas, que no ejercen en España, van a ejercer en el resto de Europa. El estigma va a ser diferente, de las mujeres que viven fuera o aquí. Cuando viven aquí, tienen a la familia a miles de kilómetros y nadie las conoce. Las probabilidades de encontrarse con unas son bastante reducidas, obteniendo beneficios y sin tener que pagar la deuda del estigma. (C1)¹⁸

Pasarte honek isiltasunaren eta lotsaren eragina erakusten du. Estigmaren pisua arintzeko, askok lurralde-aldaketa egiten dute, harreman sare hurbilen kontrol morala ahulagoa den testuinguruetara mugituz. Testuinguru aldaketak, sarritan, ikusgarritasun sozialaren arriskua gutxitzen du, eta "etxean" ez bezalako askatasun afektiboa eta segurtasun-pertzepzioa ahalbidetzen du.

Behatutako praktiken arabera, autoezarritako isiltasuna ohikoa da: lan-identitatea ezkutatu, alias edo izen asmatuekin harremandu, eta instituzioekin beti tarte bat mantendu. Praktikaldian jasotakoaren arabera:

Praktikaldian, elkarrekin harremanetan jartzen ziren emakume gehienak telefono bidez aritzen ziren, eta sarri izen asmatuak erabiltzen zituzten. Instituzioekiko mesfidantza nabaria zen; ondorioz, esku-hartze prozesuak aktibatzea zaila bihurtzen zen. (Landa-koaderno, 2025-01-09)

Bestalde, autozentsura eta informazioaren minimizazioa ere maiz agertzen dira: datu pertsonalak mugatuta ematen dira, intimitatea babesteko eta estigma-arriskuari aurre egiteko. Landa-oharrek honela jasotzen dute:

Ez diot inoiz sexu-langile bati entzun sexu-langilea dela. Ez dakit elkarrekin beldurra duten edo ez; arraroa egiten zait, gehienak urte asko daramatzatelako etortzen. Isiltasunean eta lotsan murgiltzen dira, haien bizitzako datu minimoei

¹⁵ "Feminismotik beti esaten dugu garrantzitsua dela emakumeen aurkako indarkeriaren eta patriarkatuaren kontra borrokatzea; baina, azkenean, zerbait abolizionatzen ari zarenean, suntsitu nahi duzun horretan bihurtzen ari zara."

¹⁶ "Begara, nik uste dut mugimendu feminista abolizionistek 'begiratzen dizugu, entzuten dizugu, baina ez zaitugu epaitzen; aitzitik, ulertzen saiatzen gara' leloa aplikatu beharko luketela."

¹⁷ "Orduan konturatu nintzen, eta estigma hautsi nuen. Hori da estigma: super-ahalduntuta sentitu nintzen eta esan nuen: 'guau, ama!... gainetik kendu berri dudana guztia!'"

¹⁸ "Horregatik, haietako askok —batez ere espainiarrak direnek— ez dute Espainian lan egiten; Europako beste leku batzuetara joaten dira. Estigma ez da berdina kanpoan edo hemen bizi diren emakumeentzat. Hemen bizi direnean, familia milaka kilometrora dute eta inork ez ditu ezagutzen. Elkar topatzeko aukerak askoz txikiagoak dira, irabaziak lortuz eta estigmaren zorra ordaindu beharrik gabe."

buruz bakarrik hitz egiten. (Landa-koaderno, 2025-01-09)

Laburbilduz, isiltasuna biziraupenerako taktika egokitu gisa ulertu daiteke estigma erregimenetan: agentzia babestu eta arrisku instituzionalak murrizten ditu, baina, aldi berean, bide segurua eta harrerarekiko konfiantza eraikitzea zaildu dezake, eta egiaztapen-eskaerarekiko erresistentzia eta nekea areagotu ditzake.

4.2.2. Erruduntasuna

Sexu-lanari loturiko aurreiritziek sexu-langileen autopertzepzioan eta bizipenetan eragin sakona dute. Esperientzia ugari sexua-langile baten hitzak honela agertzen dira:

Yo siempre me sentí muy culpable por ser trabajadora sexual, porque yo voy a cumplir 54 años ahora y he sido trabajadora sexual de muy joven, y también he sido feminista desde muy joven, desde los 16 años ya estaba haciendo políticas de feminismo. ¿Cómo puede ser una chica tan lista como tú trabajadora sexual? (P1)¹⁹

Lotsa eta isiltasunarekin batera, erruduntasun-sentimendua ere ugaria da, bereziki ingurune hurbilekoen (familia, lagunak, komunitatea) epaiketa moralaren ondorioz. Haien lanaren zilegitasuna etengabe zalantzan jartzen da, moralki "ongi" edo "gaizki" dagoenaren parametroetan neurtuz. Kuestionamendu horien bidez, intsegritate elikatzeaz gain, sufrimendu psikikoan eragin zuzena du: "lo que me pasaba a mí personalmente era que tenía vergüenza de mi trabajo. Me planteaba realmente si ese trabajo era bueno o era malo. Simplemente escuchaba que todo el mundo me decía que ese trabajo era malo" (P1).²⁰

Azken finean, erruduntasuna estigma-erregimenaren afektu politiko zentral gisa uler daiteke: kontrol sozial barneratuaren bidez funtzionatzen du, baina erresignifikazioaren, aitorpen afirmatiboaren eta sare kolektiboaren bidez agentzia berri artikulatzeko aukera ere badago.

4.2.3. Segregazioa eta ondoez psikikoa

Eguneroko bizitzan, sexu-langileek etengabe egiten dute topo haien gain ezarritako kategoría eta etiketekin; ondorioz, haien balioa eta zilegitasuna behin eta berriz jartzen dira zalantzan. Klasifikazio horrek ikusezintasun soziala indartu eta gizatasuna kolokan jartzen du. A1ek honela laburbiltzen du: "somos clasificadas [como]

¹⁹ "Nik beti sentitu naiz oso errudun sexu-langilea izateagatik; orain 54 urte betetzear nago, eta oso gaztetatik izan naiz sexu-langilea, eta oso gaztetatik ere feminista: 16 urterekin jada feminismo-politika egiten ari nintzen. Nola izan daiteke zu bezain neska azkar bat sexu-langilea?"

²⁰ "Niri pertsonalki gertatzen zitzaidana zen nire lanaz lotsa nuela. Benetan planteatzen nuen lan hori ona ala txarra ote zen. Besterik gabe, denek esaten zidaten lan hori txarra zela."

menos humanas, menos personas. Entonces, [eso] no nos hace meritorias de protección, de salud. Y si eres una mujer trans, no te hace meritoria ni [de] tener tu carné de identidad" (A1).²¹

Segregazio horrek ondoez psikikoa areagotu dezake, eta, praktikan ikusitakoaren arabera, arreta psikologikoa bilatzeko bidean oztopo garrantzitsuak sortzen ditu. Eskariak ez dira maiz egiten, gehienetan, instituzioekiko beldur eta mesfidantzagatik; hala ere, arreta horren beharra oso handia izaten da. Landa-koadernoan honela jasotzen da:

Gizartean ondoez psikikoa lantzeko baliabide nahikorik ez dagoela ohartu naiz, eta gainera, sexu-langileen estigma dela eta, are zailagoa izaten da laguntza hau lortzea. Edozein instituzioetara jotzerako momentuan, seguruena da epaiketa asko egongo direla, estigma areagotuz, eta erruduntasuna zein lotsa mailak handituz. (Landa-koaderno, 2025-01-30)

4.2.4. Amatasun ideala

Amatasun "onaren" kanon hetero-patriarkalak maiz erabiltzen dira sexu-langileen aurkako kontrol moral eta instituzionala justifikatzeko. Georgina Orellanok bere sare sozialetan diskurtso hori interpelatzen du, bere semearekin lotutako pasarteak partekatuz eta amatasunaren gaineko estigma zein instituzioen indarkeria nola gauzatzen diren erakutsiz: gizarte-hezitzaileen eta bestelako profesionalen etxeko bisitek etengabeko zaintza eta susmo-logikak ezartzen dituzte, ama gisa duen gaitasuna etengabe zalantzan jarriz. Haren hitzetan:

Llegó el día en que Santi pasó a su último año del secundario.

A la noticia de no llevarse materias y tener buenas notas, se le sumó el anuncio que, en la entrega de diplomas para la promoción 2024 y en el traspaso de banderas, Santi recibiría la bandera del colegio secundario Bernardino Rivadavia, siendo su primer escolta.

Santi, el que transitó conmigo juzgados y tuvo que ser vigilado por psicólogas y trabajadoras sociales que venían a nuestra casa para ver qué tipo de educación recibía de su madre la prostit^{ta}. (Orellano, 2025-05-02)²²

²¹ "Gutxiago gizaki, gutxiago pertsona gisa sailkatzen gaituzte. Orduan, horrek ez gaitu babesaren edo osasunaren merezi. Eta emakume transa bazara, ez zaitu merezi egiten ezta nortasun agiria izateko ere."

²² "Iritsi zen eguna Santi bigarren hezkuntzako azken urtera pasatu zenean. Irakasgaririk errepikatu gabe eta nota onekin zegoelako albisteari, beste iragarpen bat gehitu zitzaion: 2024ko promoziorako diploma-banaketa eta banderen traspasoan, Santik Bernardino Rivadavia bigarren hezkuntzako ikastetxeko bandera jasoko zuen, lehen escolta izanik. Santi, nirekin epaitegiak zeharkatu zituen; eta psikologoek eta gizarte-langileek zaindu behar izan zutena, gure etxera etortzen baitziren bere amak —prostit^{ta}— zer nolako heziketa ematen zion ikustera."

Adibide honek erakusten du nola bihurtzen den amatasuna ebaluazio eta ikuskapen eremu, non estigmak "haurren ongizatea" aitzakia hartuta legitimatutako esku-hartzeak martxan jartzen dituen. Instituzioen aldetik, epaiketa eta zalantzan jartze konstanteak nabariak dira, eta horren ondorioz, sexu-langile askok amatasuna isiltasunean eta ezkutuan bizitzeko beharra sentitzen dute. C1ek honela azaltzen du:

Muchas veces ellas no dicen de qué trabajan, porque está claro que la respuesta que van a tener es indagar para quitarle la tutela de sus hijos, y curiosamente están en la prostitución para dar de comer a sus hijos. Corren un riesgo bastante alto de quitarle los niños, por indagar en su vida. El estigma afecta a la maternidad, a su salud, a su vecindario: afecta a todo. (C1)²³

Horrela, amatasunaren gaineko kontrol moral eta instituzionalak estigma-geruza gehigarri bat ezartzen du, ongizatearen diskurtsoarekin estalia, baina, praktikan, sexu-langileen autonomia, osasuna eta sare komunitarioak kolpatzen dituena.

4.3. Herritar onaren baldintzak

"Errespetagarritasunaren" edo "herritar onaren" erregimenak sarbide-baldintza oso zehatzak ezartzen dizkie eskubide materialei: nominak, kotizazioak, kontratu formalak, kreditu-historialak eta dokumentazio eguneratua eskatzen dira etxebizitza, hipoteka, alokairu-kontratuak edo banku-zerbitzu arruntak lortzeko. Sexu-lanak aitorten juridiko-laboralik ez duenean, bazterketa-zirkulu bat sortzen da: aitortzarik ez dagoenez, egiaztagiririk ezin da aurkeztu; egiaztagiririk gabe, ezin da baliabideetara iritsi; eta baliabiderik gabe, berriz, aitortza bera lortzea gero eta zailagoa da. Ondorioz, sarritan, kostu gehigarriak, bitartekaritza informalek eta "irtenbide ez-ofizialak" aktibatzen dira, despaketotasunak handituz eta botere-harreman asimetrikoak finkatuz. P1ek honela laburbiltzen du:

Adquieres algo que se llama derecho de ciudadanía, que es lo que nosotras no tenemos. Este derecho de ciudadanía es como el carné para ser la buena ciudadana, para tener acceso a hipotecas, a pisos de alquiler, a tener tarjetas de banco, cuentas de banco..., o sea, todo lo que te exige este mundo moderno para vivir. Porque claro, nuestro trabajo no está reconocido y tenemos que hacer muchísimo trapicheo y pagar mucho más que una persona normal para poder acceder a los derechos básicos. (P1)²⁴

²³ "Askotan, haiek ez dute esaten zertan lan egiten duten, argi baitago izango duten erantzuna seme-alaben tutoretza kentzeko aitzakian haien bizitza miatzen hastea dela; eta, bitxia bada ere, prostituzioan daude seme-alabei jaten emateko. Nahiko arrisku handia dute haurrak kentzeko, haien bizitza ikertzeagatik. Estigmak amatasunari eragiten dio, osasunari, auzoari: denari eragiten dio".

²⁴ "Hiritartasun-eskubidea deitzen den zerbait eskuratzen duzu, eta hori da guk ez duguna. Hiritartasun-eskubide hori 'herritar on'

Aipamenak argi uzten du "herritar ona" izateko ezarritako baldintza burokratiko eta moralek nola bihurtzen duten sarbidea pribilegio: lan-aitortzarik ezear, zorraren eta susmoaren logikak aktibatzen dira, eta babes-sare publikoetara sartzeko aukerak zailtzen dira. Hori guztia, azken batean, estigma instituzionalarekin uztartzen da, eta eskubideen benetako errealizazioa —ez solik formala— baldintzatzen du.

4.3.1. Kuestionamenduak: epaiketa sozialak eta tratu-aldaketak

"Put" etiketa edozein momentutan ager daitekeen susmo-marka gisa funtzionatzen du, eta harekin batera etortzen dira epaiketa moralak, kuestionamenduak eta berehalako tratu-aldaketak. Identitatea esplizituki adierazten denean, harreman-tratua nabarmen okertzen da: aurpegiko espresioak eta gorputz-jarrerak aldatzen dira, eta hizkera tonu desbalorizatzaile batera jaisten da, desbalorizazio interakzionala eraginez. C1ek osasun-arloan behatutako praktika arrunt bat deskribatzen du:

Tienen una etiqueta en la frente para todo. Si van al ginecólogo, la gran mayoría no dicen que son trabajadoras sexuales, porque el ginecólogo cambia de expresión, reacción y el trato, y eso lo he comprobado. Muchas no cuentan que son trabajadoras sexuales, a menos que encuentren ginecólogas que sean especializadas, sensibles a las mujeres en situaciones de estigma, y las atiendan con cariño, o un mínimo de decencia. (C1)²⁵

A2k ere lan-hautuen eta erabakien gaineko zalantzan jartze etengabea azpimarratzen du, estigmak harremanetan duen eraginaren parte gisa: "ahal diogu erantsi, estigmaren inguruko epaiketa handiagoak, kritika handiagoak edo komentario, espresio edo tratu ezberdinak. Haien erabakien kuestionamendu konstantea" (A2).

Horrela, epaiketa sozial eta instituzionalek "herritar onaren" irizpideen bidez funtzionatzen dute: subjektuak etengabe neurtu eta baloratu egiten dira moralitatearen eta errespetagarritasunaren parametroetan, eta horrek, praktikan, lan-aukeretan, sarbide administratiboetan eta eguneroko tratuetan metatzen den diskriminazio-modu bat ekoizten du.

izateko txartela bezalakoa da: hipoteka lortzeko, alokairuko pisuak eskuratzeko, banku-txartelak izateko, banku-kontuak... hau da, mundu moderno honek bizitzeko eskatzen dizun guztia. Gure lana aitortua ez dagoenez, trapitxeo asko egin behar dugu eta pertsona 'normal' batek baino askoz gehiago ordaindu behar dugu oinarriko eskubideetara iristeko".

²⁵ "Kopetan etiketa bat dute denetarako. Ginekologora joaten direnean, gehienek ez dute esaten sexu-langileak direla, ginekologoak aurpegiera, erreakzioa eta tratua aldatzen dituelako; nik hori egiaztatu dut. Askok ez dute kontaktzen sexu-langileak direla, salbu eta estigma-egoeretan dauden emakumeekiko espezializatuak eta sentikorrek diren ginekologoak aurkitzen dituztenean, eta maitasunez edo gutxieneko duintasunarekin artatzen dituztenean".

4.3.2. Instituzio publikoen oztupoak

Elkartean egindako praktketan, laguntza-ibilbideak (akonpainamenduek) presentzia handia izan zuten, bereziki ospitalera ITS probak egitera joateko orduan. Kasu askotan, sexu-langileek gure laguntza eskatzen zuten, segurtasun afektibo eta instituzional handiagoa izateko, epaiketa moralak eta kuestionamenduak jasotzeko beldurraren aurrean. Landa-koadernoa honela jaso zen:

Hala eta guztiz ere, instituzio publikoetara joateko laguntza eskatzearen arrazoi nagusia seguru sentitzen ez direlako izaten da. Segurtasun-falta kuestionamendu edo epaiketen bidez izan daiteke, bai eta haien identitatea agerian jartzeko beldurra. Haiekin joaten garenez, konfiantzazko gune bat izaten gara, eta askatzeko segurtasun gehiago somatzen da. Honek ez du esan nahi haien lana egiten dugunik, baizik eta laguntzazko puntu garrantzitsua izaten gara, haien autonomia garatuz. (Landa-koadernoa, 2025-03-26)

Praktketan ikusitako beste alderdi esanguratsu bat da, sarri, zerbitzu publikoen ordez, zerbitzu pribatuak kontratatzen direla. Zerbitzu publikoetara sartzeko oztupoak eta mesfidantza direla eta, mediku pribatuetara jotzea errazagoa dela hautematen da. Horrela, prozedura publiko osoa saihestu eta proba medikoak modu azkarrago eta "anonimoagoan" egiten dira, baina kostu ekonomiko handia ordainduz: "honen bidez, zerbitzu publikoen prozesu osoa alde batera uzten da, eta mediku pribatuen bidez modu errazago eta azkarrago batean probak egiten dira, baina kostuak handituz" (Landa-koadernoa, 2025-03-11).

Horrela, instituzio publikoekiko segurtasun faltak eta estigmak bultzatzen dute pribatizazioarako joera, eta horrek desberdintasun sozioekonomikoak areagotzen ditu.

4.4. Kriminalizazioa: jazarpen-erregimena eta "segurtasun-kontrolak"

Sexu-lana nagusiki pisuetan, klubetan eta kalean gauzatzen da; azken eremu hori da kalteberena, ikusgarritasun handiena eta aitortza legalik eza uztartzen direlako. Ez-aitortze horrek zaurgarritasuna areagotzen du, bai jazarpen instituzionalaren aurrean (patrullak, identifikazioak, isunak, desplazamendu behartuak), bai indarkeria pribatuaren eta esplotazio-saiakeren aurrean. Aitek bere esperientziatik honela dio: "la falta de reconocimiento legal nos pone en una situación muy precaria, expuestas a que las mafias nos puedan cobrar, disparar, hasta [hacer] desaparecer..." (A1).²⁶

Praktikan, "segurtasun-kontrolen" diskurtsupean ezartzen diren esku-hartzeek lan-eremuak sakabanatu

²⁶ "Legezko aitortzarik ezak egoera oso prekarioran jartzen gaitu, mafiek dirua kobratu ahal izateko, tiro egin ahal izateko, eta baita desagerrarazi ere..."

eta ibilbideak gero eta ezkutuago bihurtzera bultzatzen dituzte; horrek bezeroak aurrez baloratzeko denbora murriztu, negoziazio-ahalmena ahuldu eta arrisku operatiboak handitzen ditu. Ondorioz, kriminalizazio-logikek klandestinitaterako joera elikatzen dute, eta babes-bideak zaildu eta lausotu egiten dira.

4.4.1. "Animalitos de safari": kontrol poliziala eta indarkeria interseksionala

Indarkeria poliziala sarritan sexu-langileen gaineko diziplitatze- eta kontrol-tresna gisa erabiltzen da. Sexu-langileen testigantzek honela adierazten dute poliziek izaten duten papera sexu-lanaren estigmari lotuta:

En el caso de la Policía, siempre responde con indiferencia. La Policía nos persigue por las calles. La propia Policía Nacional va con unas carrozas a perseguirnos a la zona de trabajo sexual. Como si las trabajadoras sexuales fuéramos animalitos de safari; y van y nos meten en los carros. (A1)²⁷

Aitek deskribatutako esperientziak zainketa eta jazarpenarako dispositibo gisa funtzionatzen duen kontrol polizial erregularra erakusten du. Aitorpen edo errekonozimendu legalik ezean, indarkeria polizialaren eta mafiaren mehatxuak areagotu egiten dira: printzipioz ezin lukete sexu-langileak arrazoirik gabe atxilotu, baina praktikan "segurtasun-kontrolen" aitzakiarekin identifikazio, geldiarazte eta isunketa selektiboak errepikatu egiten dira.

Gainera, kontrol horiek sarri profilatze-irizpideetan oinarritzen dira, eta arraza eta genero bektoreen gurutzaketak kaltea biderkatzen du. P1ek honela jasotzen du:

Pero, bueno, eso sí, he visto cómo la Policía, a las mujeres negras, les quitaba dinero, las corría, y, en cambio, a las blancas, no, ¿sabes? O sea, como que el estigma de la prostitución es agravado cuando es atravesado por otras realidades. (P1)²⁸

Laburbilduz, delituaren susmo orokortua eta moralizazio diskurtsiboa uztartzen direnean, jazarpenarako egitura bat eratzen da: presentzia polizial sendoak espazioaren desplazamendua eragiten du (kaletik klubetara edo pisuetara), ikusgarritasun-arriskuak eta segurtasun-eza handituz, eta salaketarako bideak ahulduz.

²⁷ "Poliziaren kasuan, beti axolagabekiaz erantzuten du. Poliziak kaleetan jazartzen gaitu. Polizia Nacionala bera karroza batzuekin etortzen da lan sexuarekin gunera gu jazartzera. Sexu-langileok safari-ko animalitxoak bagina bezala; etorri, eta karroetan sartzen gaituzte."

²⁸ "Baina bai, hori bai: ikusi dut poliziak emakume beltzei dirua kentzen ziela, eta, aldiz, zuriak ez, badakizu? Alegia, prostituzioaren estigma areagotzen dela beste errealitate batzuek zeharkatzen dutenean."

4.4.2. Errebiktimizazioa: sinesgarritasunaren ukapena eta beldur-espiala

Indarkeria instituzionalaren adierazpen esanguratsuetako bat bigarren mailako biktimizazioa da. Salaketa jartzeko edo laguntza eskatzeko unean, sexu-langileen sinesgarritasuna zalantzan jartzen da eta haien portaera moralki epaitzen da. Kale-esparruan geratzen diren indarkeria fisiko eta sexual ohikoenak salatzean, susmo-logika bat aktibatzen da: galdera inplizitu edo esplizituek ("lan sexuala egiten baduzu, zergatik salatu?") erruaren lekualdaketa eragiten dute, ardura erasotzaitetik biktimarengana mugituz. Aiek honela azaltzen du bere esperientzia:

En mi propia experiencia, sí, sin duda he sentido la discriminación institucional. Cuando yo he querido denunciar algún acto de violencia por algún cliente, y los policías me preguntan "¿por qué vas a denunciar si estás en situación de trabajadora sexual?", como diciendo, es lo que te toca, y lo estás permitiendo. (A1)²⁹

Praktikan, errebiktimizazioa tratu diferentzial eta prozedura-oztopo zehatzen bidez gauzatzen da: gertakarien banalizazioa, salaketa jartzeko zailtasunak jartzea edo gehiegizko ebidentziak eskatzea; intimitatea urratzen duten galdeketa moralizatzaileak; eta, zenbait kasutan, zeharkako mehatxu administratiboak (egoera administratiboaren inguruko presioa, etab.). Ondorioz, isiltasun eta atzerapen espirala eratzen da: beldurra areagotu, salaketak gutxitu eta babes-bideak ilundu egiten dira; horrek, bere aldetik, klandestinitaterako bultzada eta kalte metatua sendotzen ditu.

Gurutzatutako estigmen testuinguruan (arrazza, migrazio-egoera, genero-identitatea), mekanismo hauek are zorrotzago aplikatzen dira, eta despaketotasun instituzionala larriagotzen da.

4.5. Zer egin dezake gizarte-langintzak?

Gizarte-langintzak sexu-langileen ahotsa eta parte-hartze informatua erdigunean jarri behar ditu, paternalismoa saihestuz eta eskubide-ikuspegi sendoa txertatuz. Horrek esan nahi du harrera ez-estigmatizatzailea bermatzea, bide segurua modu sistematikoan artikulatzea eta sare pro-eskubideekin koordinazio horizontala ezartzea.

A2ren hitzek orientazio nagusi hori laburbiltzen dute:

Lehenengo, haiek entzutea... Baina ez bakarrik entzutea, baizik eta esperientzia duten emakumeei ahotsa ematea, hots, adituak, errealitatea ulertzeko.

²⁹ "Nire esperientzian, bai, zalantzarik gabe diskriminazio instituzionala sentitu dut. Bezero baten indarkeria-ekintza bat salatu nahi izan dudanean, polizia galdetzen didate: 'zergatik zoaz salatzena sexu-langile egoeran bazaude?', esanez bezala: hori tokatzen zaizu, eta onartzen ari zara."

Abolizionismo toxikoaren baieztapenak alde batera uztea, eta *proderechos* ahotsak entzutea. Langile klasean ere sexu-langileak daudela ulertzea. Haien aldarrikapenak ere langile moduan babestea eta ospatzea. (A2)

Halaber, A1ek azpimarratzen du gizarte-langintzak laguntza eta babes errealak artikulatu behar dituela, "espazio segurua" eta indarkeriarik gabeko praktikak bermatuz: "acompañamos tu lucha, para que puedas tener espacios seguros para que puedas ejercer el trabajo sexual, con libertad, sin tener espacios de violencia" (A1).³⁰

Horrek guztiak eskatzen du parte-hartze informatua lehenestea eta diagnostikotik ebaluaziora arteko akonpainamendu-ziklo osoan sexu-langileen ahotsak ardatz jartzea. Aldi berean, kontuan hartu behar dira salbazio-politikek eta infantilizazio-diskurtsoek sortzen dituzten kalte ez-ikusgarriak: azken batean, erreskatatua izan nahi ez duen kolektibo bat jazarria izaten ari da. Gizarte-langintzaren egitekoa, hortaz, jarrera kritikoa eta kontu-ematea da, sexu-langileen eskubideak erdigunean kokatuz.

Laburbilduz, gizarte-langintzak ez ditu soilik baliabideetarako "irteera-bide" teknikoak eskaini behar; konfiantzan eta eskubideetan oinarritutako harreman profesionalak eraiki behar ditu, isiltasun estrategikoei eta mesfidantzek sortzen dituzten dinamikak gainditzeko. Sexu-langileen eskubideak defendatzea ez da soilik kontzientziazio-ariketa: gizarte-langintzaren konpromiso etiko eta profesionalaren parte da, eta komunitate sentimendua eta lotura kolektiboa indartzen laguntzen du.

5. Implikazio praktikoak: gizarte-langintzarako orientazioak

Ondoko orientazioek ildo operatibo nagusiak eskaintzen dituzte, testuinguru eta zerbitzu bakoitzera moldagarriak. Ez dira protokolo itxiak, baizik eta hausnarketa eta eguneratze kritikorako norabideak, ikerketan azaleratutako dinamikei erantzuteko:

- Harrera ez-estigmatizatzailea eta hizkera zaindua: identitatea, amatasuna edo moralitatea ez problematizatzea; *what matters to you?*³¹ logika lehenestea, pertsonaren beharrak, lehentasunak eta desirak ardatz hartuta.
- Konfidentziasun aktiboa eta egiaztapen-minimoak: behar den informazio esentziala soilik eskatzea; susmo-logikak, galdeketa inbasiboak eta pribatutasun-urraketak saihestea.
- Kalte murrizketa eta bide segurua: informazioa, materialak eta arrisku protokoloak eskaintzea; deribazio segurua planifikatu eta dokumentatzea

³⁰ "Zure borrokan laguntzen zaitugu, askatasunez lan sexuala egin ahal izateko espazio segurua izan ditzazun, indarkeriarik gabeko espazioetan."

³¹ "Zer da zuretzat garrantzitsua?"

(osasun, juridiko eta gizarte-baliabideetara), kontrol eta zaintza logikak inposatu gabe.

- Sare-mapaketa eta koordinazio horizontala: baliabide publiko eta pribatuen mapa eguneratua edukitzea; elkarrekin pro-eskubideekin eta *peer* eragileekin (parekoekin) lotura egonkor eta elkarlan parekidea sustatzea.
- Prestakuntza espezifikoa eta autokritika etengabea: estigma-murrizketa, interseksionalitatea, arrazakeriaren aurkako praktikak eta *trans-affirming* arreta lantzea; talde-saio laburrak eta kasu-azterketak txertatzea zerbitzuetan bertan.
- Protokolo eta hizkera instituzionalaren berrikuspena (maila meso/makro): sarbide-oztopoak identifikatu eta murriztea; "herritar onaren" baldintza burokratikoek sortzen duten bazterkeria arintzea; migrazio-araubideak dakartzan murrizketen aurrean defentsa eta deribazio ibilbide argiak zehaztea eta koordinazio komunitarioa indartzea.
- Parte-hartze zuzena, ordaindua eta jakintzaren aitortza: sexu-langileak ko-diseinuan, inplementazioan eta ebaluazioan txertatzea; parte-hartze informatua eta erabakitzailea bermatzea; ordainsariak/dietak eta zaintza-kostuen konpentsazioa ziurtatzea; itzulera komunitarioak eta *feedback* zirkuluak sistematizatzea.
- Gune emozional seguruak eta autozaintza komunitarioa: ondoez psikikoa lantzeko espazio seguruak sortzea, estigma barneratuaren eragina arintzeko eta lotura komunitarioa indartzeko.
- Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak: segurtasuna, sarbidea, autonomia/agentzia eta errebiktimizazio-tasak neurtu eta emaitzen itzulera publikoa bermatzea, *feedback* zikloa itxeko eta praktika eguneratzeko.

Azkenik, despenalizazio-ikuspegiek sarbidea eta segurtasuna hobetzeko baldintza egokiagoak sortzen badituzte ere, estigma ez da automatikoki desagertzen; hortaz, goian proposatutako neurriak modu sistematikoan txertatzea da gakoa, gizarte-langintzaren eguneroko jardunean errotzeko.

6. Ondorioak

Lan honek sexu-langileen ahotsak erdigunean jarri ditu, estigmak eta kriminalizazio-logikek eguneroko bizitzan eta zerbitzu-ibilbideetan duten eragina dokumentatzeko. Horren bidez, indarkeria instituzionala eta estrukturala nola ekoizten diren

ulertu nahi izan dugu, eta, aldi berean, erresistentzien jakintzatik abiatutako orientazio praktikokoak proposatu.

Emaitzek erakusten dute estigma eta kriminalizazio-logikak ez direla salbuespen egoerak, baizik eta egunerokoan etengabe ekoizten eta birsortzen diren erregimenak: isiltasun estrategikoak, erruduntasunaren kudeaketa, tratu diferentziala eta klandestinitaterako bultzada ageri dira mekanismo nagusi gisa. Indarkeria estrukturalak —arau-esparrua, migrazio-araubidea— eta indarkeria instituzionalak —segurtasun-kontrolak, susmo-logikak, pribatutasun-urraketak— elkar elikatzen dira, ibilbideak korapilatu eta beldurra areagotuz. Aldi berean, erresistentziak etengabeak dira: praktiken aldetik, kalte-murrizketa, autoantolakuntza-sareak eta pareen arteko jakintza; eta hauek sostengatzen dituzten baldintzetan, talde-identitatea, espazio seguruak eta parte-hartze informatua. Konbinazio horrek agentzia indartu eta sarbide "seguruagoak" negoziatzeko aukerak zabaltzen ditu.

Ondorio praktiko nagusiak argiak dira: despenalizazio-ikuspegiek sarbidea eta segurtasuna hobetzen dituzte, baina, aurrez azaldu bezala, estigma ez da automatikoki desagertzen. Horregatik, beharrezkoa da praktika instituzionaletan estigma-murrizketa eta berdintasun-ikuspegia sistematikoki txertatzea; maila mikroan, entzute eraginkorra, harrera ez-estigmatizatzailea eta bide seguruak artikulatzea; eta maila meso/makroan, koordinazio komunitario horizontala eta sarbide-oztopoen desaktibazioa sendotzea.

Azken batean, ez dugu sexu-lana abstrakzio gisa aztertu: zerbitzu eta politika sozialen begiradatik ulertu dugu estigmak nola baldintzatzen dituen bizitzak, eta zein baldintzatan bihurtzen den indarkeria instituzional. Hortik abiatuta, praktikak aldatzea —nola jasotzen dugun, nola galdetzen dugun eta nola erabakitzen dugun— ibilbideak aldatzea da. Mezu nagusia honakoa da: sexu-langileen ahotsak entzutea, eskubideak bermatzea eta estigma desaktibatzea ez dira soilik jarrera etikoak; eraginkortasun profesionalaren baldintza ere badira.

Amaitzeko, entzutean eta konfiantzan oinarritutako hurbilketa batek soilik saihesten du laguntza-harremana kontrol-harreman bihurtzea. "Lo primero, que nos dejen tranquilas" aldarría ez da esaldi performatibo hutsa: eskubideetatik eta konfiantzatik abiatutako akonpainamenduak dute, benetan, kaltea murriztu eta duintasuna zein agentzia sendotzeko gaitasuna. Gainerakoa —"salbazioaren" izenean egindako presioa—, azken batean, indarkeriaren beste forma bat da.

Aipatutako bibliografia

- ALMANZA, N. (2022): "Trabajadoras sexuales: violencias y precariedad laboral", *Andamios*, 19. bol., 48. zb., 39.-60. or., <<https://doi.org/10.29092/uacm.v19i48.894>>.
- ALONSO NAVARRO, L. (2025): *Lo primero que nos dejen tranquilas: sexu-lanaren estigma, indarkeriak eta erresistentzien inguruko gerturaketa bat*, Leioa, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- ANGROSINO, M. (2012): *Etnografía y observación participante en investigación cualitativa*, Madril, Ediciones Morata.
- ARDÉVOL, E. eta GÓMEZ-CRUZ, E. (2014): "Digital ethnography and media practices", in DARLING-WOLF, F. (ed.), *The International Encyclopedia of Media Studies*, 7. bol., Malden, Wiley-Blackwell, 498.-518. or., <<https://doi.org/10.1002/9781444361506.wbiems193>>.
- ARELLA, C.; FERNÁNDEZ, C.; NICOLÁS, G. eta VARTABEDIAN, J. (2007): *Los pasos (in)visibles de la prostitución. Estigma, persecución y vulneración de derechos de las trabajadoras sexuales en Barcelona*, Bartzelona, Virus Editorial.
- ARMSTRONG, L. eta ABEL, G. (2022): *Trabajo sexual con derechos: una alternativa de despenalización*, Bartzelona, Virus Editorial.
- BAILÓN, F. (2016): "Reglamentarismo y prostitución en la ciudad de México, 1865-1940", *Historias*, 93. zb., 79.-98. or.
- CIBATÍ, D. eta LOSADA, S. (koord.) (2010): *Plan general contra la trata de mujeres y abuso sexual a menores. Análisis y prácticas*, Cuadernos Solidarios saila, 7. zb., Madril, Universidad Autónoma de Madrid, <<https://www.uam.es/uam/media/doc/1606875432288/cuadernos-solidarios-7.pdf>>.
- CLEMENTE VILLAR, C. (2020): "El impacto psicológico del estigma prostituta", *Revista del Laboratorio Iberoamericano para el Estudio Sociohistórico de las Sexualidades*, 4. bol., 8. zb., 152.-172. or., <<https://doi.org/10.46661/relies.5106>>.
- COMITÉ DE APOYO A LAS TRABAJADORAS DEL SEXO (2024): *Las prostitutas hablan de violencias: una investigación cualitativa-cuantitativa con 318 participantes*, Murtzia, CATS, <<https://www.asociacioncats.es/wp-content/uploads/2024/03/investigacion-23.pdf>>
- CRENSHAW, K. (2012): "Cartografiando los márgenes. Interseccionalidad, políticas identitarias y violencia contra las mujeres de color", in PLATERO, L. R. (ed.), *Intersecciones: cuerpos y sexualidades en la encrucijada*, Bartzelona, Edicions Bellaterra, 87.-124. or.
- DE JUAN, E. (2021): "(Sobre)vivencias de la psiquiatría: una aproximación a las subjetividades de la violencia institucional y los activismos locos", *Punto Urbe*, 29. zb., 1.-24. or., <<https://doi.org/10.4000/pontourbe.11029>>.
- (2023): *Voces de la locura: una aproximación desde la antropología social a las experiencias en el activismo loco y los grupos de apoyo mutuo [doktoretza tesia]*, Bellaterra, Universitat Autònoma de Barcelona, <<http://hdl.handle.net/10803/689942>>.
- DE JUAN, E. eta ARIZTI, M. (2024): "Medea revisitada y la escucha de voces: conversaciones entre la literatura y la antropología", *Perifèria. Revista de Recerca i Formació en Antropologia*, 29. bol., 2. zb., 74.-95. or., <<https://doi.org/10.5565/rev/periferia.952>>.
- ESPAINIA (1995): "Ley Orgánica 10/1995, de 23 de noviembre, del Código Penal", *Boletín Oficial del Estado*, 281. zb., 1995-11-24, <<https://www.boe.es/eli/es/lo/1995/11/23/10/con>>.

- (2000): "Ley Orgánica 4/2000, de 11 de enero, sobre derechos y libertades de los extranjeros en España y su integración social", *Boletín Oficial del Estado*, 10. zb., 2000-01-12, 1139.-1150. or., <<https://www.boe.es/eli/es/lo/2000/01/11/4>>.
- ESTEBAN, M. L. (2004): *Antropología del cuerpo. Género, itinerarios corporales, identidad y cambio*, Bartzelona, Edicions Bellaterra.
- (2019): "Antropología feminista: diálogos y tensiones con la antropología y el feminismo", in COBO, R. (ed.), *La imaginación feminista. Debates y transformaciones disciplinares*, Madril, Los Libros de la Catarata, 79.-113. or.
- EZKERRA, P. (2019): "Trabajo sexual: ¿criminalización o reconocimiento?" [bideoa], Ipar Hegoa Fundazioa, <<https://www.youtube.com/watch?v=XFsAXZ3KkY>>.
- FALCONÍ, M. (2022): "El estigma de la prostituta: un análisis de género al proceso de constitución de sujetos sociales femeninos estigmatizados", *Millcayac*, IX. bol., 16. zb.
- FERNÁNDEZ DE ROTA, J. A. (2012): *Una etnografía de los antropólogos en EEUU. Consecuencias de los debates posmodernos*, Tres Cantos, Akal.
- GLOBAL NETWORK OF SEX WORK PROJECTS (2024): *Guía útil para las personas que ejercen el trabajo sexual: movimientos anti-derechos y trabajo sexual* [baliabide elektronikoa], Edinburgo, Global Network of Sex Work Projects, 2024-12-18, <<https://www.nswp.org/es/resource/nswp-smart-guides/guia-util-para-las-personas-que-ejercen-el-trabajo-sexual-movimientos-anti>>.
- GOFFMAN, E. (1963): *Estigma: la identidad deteriorada*, Buenos Aires, Amorrortu.
- HARAWAY, D. (1995): *Ciencia, cyborgs y mujeres: la reinvención de la naturaleza*, Madril, Cátedra.
- HARDING, S. (1996): *Ciencia y feminismo*, Madril, Ediciones Morata.
- HOLMES, D. eta MARCUS, G. (2008): "Collaboration today and the re-imagination of the classic scene of fieldwork encounter", *Collaborative Anthropologies*, 1. bol., 81.-101. or.
- LORDE, A. (1984): *Sister outsider: essays and speeches*, Trumansburg, Crossing Press.
- MCNAY, L. (2000): *Gender and agency. Reconfiguring the subject in feminist and social theory*, Cambridge, Polity Press.
- NIKLISON, L. M. (2019): "Una mujer y una puta: análisis narratológico de un relato de Georgina Orellano", *Entornos*, 32. bol., 2. zb., 32.-44. or., <<https://journalusco.edu.co/index.php/entornos/article/view/2697>>.
- ORELLANO, G. (2022): *Puta feminista: historias de una trabajadora sexual*, Bartzelona, Virus Editorial.
- (2024): "Santy 1º Escolta de la Bandera [...]", *Instagram*, 2024-12-21, <<https://www.instagram.com/p/DD0YFUUJslm/>>.
- OTRAS (2025a): "Ayer, 1 de mayo, salimos a las calles [...]", *Instagram*, 2025-05-02, <<https://www.instagram.com/p/DJJRZwHq-UR/>>.
- (2025b): "Quiénes somos" [web-orrialdea], <<https://sindicatootras.com/quienes-somos/>>.
- PUJADAS, J.; COMAS, D. eta ROCA, J. (2004): *Etnografía*, Bartzelona, Editorial UOC.
- RABINOW, P. (1992): *Reflexiones sobre un trabajo de campo en Marruecos*, Madril, Júcar.
- RISMAN, B. J. (2021): "El género en tanto que estructura social", in RISMAN, B. J., *A dónde nos llevará la generación millennial. En lucha contra la estructura de género*, Valentzia, Publicacions de la Universitat de València, 21.-73. or.
- SÁNCHEZ PERERA, P. (2019): *Crítica de la razón puta. Cartografías del estigma de la prostitución*, Madril, La Oveja Roja.
- SPIVAK, G. (1984-1985): "Criticism, feminism and the institution", *Thesis Eleven*, 10-11. zb., 175.-189. or., <<https://doi.org/10.1177/072551368501000113>>.
- STOLLER, P. (1989): *The taste of ethnographic things: the senses in anthropology*, Philadelphia, University of Pennsylvania Press.
- TAPIA, F. M.; CASTRO, W. L.; POBLETE, C. M. eta SOZA, C. M. (2015): "Estigma hacia los trastornos mentales: características e intervenciones", *Salud Mental*, 38. bol., 1. zb., 53.-58. or.
- WITTIG, M. (1992): *El pensamiento heterosexual y otros ensayos*, Bartzelona; Madril, Egales.

